



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023FPRO0001
ID.06/23-0045

DEKRETUA

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

2023ko abuztuaren 4ean 2023/800 zenbaki dekretuan operario lan poltsako epaimahaia izendatu zen. Bertan izendatutako Txomin Tolosa Iztueta titularra eta bere ordezkoa den Imanol Aizpurua Arroyok ezin dute egon zerrendetan famili artekoak dituztelako. Beraz, epaimahian hauek kendu eta Mikel Artola Azkue titular eta Joaquin Otxotorena Vitoria ordezko izendatuko dira.

Hau guztia kontutan harturik, zera

ERABAKI DUT

LEHENENGO: Operario lanpoltsako prozesuan izendatutako Epaimahaietan esandako aldaketa egitea.

BIGARREN: Erabaki hau web orrian argitaratzea.

Erabakiaren aurkako errekursoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.
- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: **2023FPRO0001**
ID.06/23-0045

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, agindu eta izenpetzen duena alkateak. Usurbilen, dekretuaren datan.

ALKATEA
Agurtzane Solaberrieta Mesa

IDAZKARIA
Garazi Etxeberria San Miguel



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUd264627f-12be-4204-8b37-070a25000dc8**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023FPRO0001-Dekretua_orokorra/Dekretua_orokorra (USURBILGO UDALA)